



SEN BENTLOME
EZELEX

Euskara

EL GOIBAR



Aurkibidea

Aurkezpena	6
Historia	8
Alde Zaharra	10
Ingurunea	12
Auzoak	14
Industria	16
Makina-Erremintaren Museoa	18
Fosilen eta Mineralen Museoa	20
Jaiak	22
Mintxeta	24
Leku interesgarriak	26
Gastronomia	28
Inguruko herriak	30
Zerbitzuen gida	34





Aurkezpena

Elgoibar mendi berdez inguratutako herria da. Gipuzkoako probintziaren mendebaldean kokatuta dago. Deba ibaiak udalerria zeharkatzen du. Azkarate, Muneta, Petomendi eta Kalamua mendietatik behera datozen errekaetok bertan isurtzen dituzte urak.

Elgoibar, bereziki, industria-herria izan da betidanik; eta halaxe da gaur egun ere. Bertako jarduerarik garrantzitsuena makina-erremintaren ekoizpena da. Duela urte asko, armaolak eta burdinolak ugari ziren gure herrian. Gaur egun, berriz, metalurgia ekoizpena da indartsuena.





Historia

Aspaldi batean, Elgoibar Marquina de Yuso deituriko lurraldean zegoen. 1346 urtean, Alfonso XI.ak Hiri Gutuna sinatu zuen, eta horri esker, Elgoibar Villamayor de Marquina izenarekin sortu zen. 1472 urtean, berriz, Gipuzkoako Batzarrek eta Errege Katolikoek baimena eman zuten herriari Elgoibar deitzeko; gaur egun San Bartolome parroikia kokatuta dagoen inguruari, hau da, harresiz inguratutako hiria eraiki zen lekuari, lehendik ere, Elgoibar deitzen zitzaion-eta.

Zenbait sutereren ostean, herrian aurrerapenak agertzen joan ziren: esaterako, plazako iturrian edateko ura jarri zuten (1883), eta kaleetan, argi indarra (1893). Poliki-poliki, herria mendi alderantz zabaltzen joan zen, Elgoibar, gaur egun ezagutzen dugun herria bilakatu zen arte.





Alde Zaharra

1459. urtean, Martin Sanchok Olasoko San Bartolome monastegiaren eliza eraiki zuen. Monastegia eta eliza desagertu egin ziren, baina elizaren atariak zutik dirau oraindik.

Atari ederra, garrantzia historiko eta artistiko handikoa, hilerriko sarrera da gaur egun.

Maalako eliza, gutxi gorabehera, 1346. urtekoa da; eta herria inguratzen zuen harresiaren mugan kokatzen da, Gaztelara zihozaren merkatarien bidean.

Nafarroa plazan Altzolatarren dorretxea dago. Dorretxe honi buruzko lehendabiziko agiriak 1484. urtekoak dira, nahiz eta sorrera lehenagokoa izan. Larraldietan etxe hori herriko kontzejuaren egoitza izan zen. Esaterako, 1560. urtean, suak herriaren zati bat suntsitu zuen, eta herria berriz eraiki behar zenez, Udala eta herritarrek dorretxean bildu ziren erabakiak hartzeko. Aita Agirre plazari “Plaza Txikixa” ere

deitzen zaio. Aita Agirre plazan izen bereko eraikina dago, sasoi batean herriko ikastetxea izan zena.

Gaur egun, Foruen plaza herritarren bilguneetariko bat da. Elgoibartarrek “Plaza Haundixa” izenaz ere ezagutzen dute. Gune barroko eta harmoniatu horretan kokatzen da Udaletxea, 1737an Ibero anaiek eraikia. Bertan, Errege Katolikoek 1498. urtean herriari emandako armarria nabarmentzen da. Foruen plazan, bestalde, San Bartolome (Elgoibarko zaindaria) eliza ikus daiteke, Longak, Larrazak eta Ibero anaiek egindakoa.

Hogeita bost urte behar izan zituzten eraikitzeko, eta 1716an inauguratu zuten. Eskurialense estiloko tenplua da, dorre barroko-duna; aldareak, aldiz, tankera klasikoa du. Multzo eder hau arkupe-dun etxez eratutako eraikinek eta Euskadiko pilotaleku zaharrenak osatzen dute.





Ingurunea

Elgoibarko ingurunea bailara txikiak osatzen dute. Bertan, kolore berdea da nagusi.

Debabarrenean txoko ezkutua daude, beste turismo mota bat egiteko eta urteko edozein arotan ezagutzeko aproposak.

Karakate-lurkurutzeta mendikatetik Euskal Herriaren ikuspegirik onenetarikoak izango dugu. Mendikatea Bergarako, Elgoibarko eta Soralezeko udalerrien gainean dago.

Lurkurutzeta da bertako mendirik garaiena, gutxi gorabehera, bederatziehun metroekin. Mendikatean barrena, ibilbide lasai bat egin ahal izango dugu. Inguru hau egokia da familiarekin batera

ibilaldiak egiteko. Aipatzekoak dira inguruan dauden trikuharriak eta tumuluak. Jose Miguel Barandiaran etnografoa eta antropologo euskaldunak "Trikuharrien ibilbidea" izena jarri zion toki honi, bertan trikuharri eta tumulu ugari daudelako. Mendizaleek Elgoibartik mendikate honetara joateko sarrien erabiltzen dituzten bi ibilbideak Azkue (San Roke) eta Sallobente-Ermuaran auzoetatik abiatzen dira.

Kalamua da elgoibartarrek gehien atsegin duten mendietariko bat. Gailurra, itsas mailatik 771 metrora dago, Bizkaiko Markina eta Etxebarria herrien eta Elgoibarko herriaren arteko mugan. Zelaiak orrazten dituen haizea, baserriko

horma zurietan islatzen den eguzkia, eta harrotasun handiz zutitzen diren zuhaitzak lagun ditugula, denboraren iragana gelditu egin dela irudituko zaigu. Bost zentzumenentzako gozamina da inguru honetatik ibilbide bat egitea.

Han eta hemen ezkutuko haitzulo eta hilarriak, itsasertzeko labar zorrotzak, historia handiko baserriak eta antzinako bordak ikusi ahal izango ditugu, ohiko ibilbide turistikoetatik urrun. Horri guztiorri esker, Elgoibar eta Debabarrena eskualdea leku abegitsu bihurtzen dira, aberastasun etnografiko eta natural handikoak; ezagutu nahi duten guztiak hartzeko prest daudenak.



Auzoak



ALTZOLA

Urteetan zehar, 1846an sortutako bainuetxeari esker, bisitariak erruz joan ohi ziren Altzolara. Bainuetxeaz gain, arkitektura ondare zabala du auzoak. Bertan Olaetxea dorrea, Altzolako dorrea, Albizkoa etxea, Aurretxe jauregia eta Zelaia hotela izandakoa ikus daitezke. San Juan jaiak: ekainak 24.

ARRIAGA

Arriaga auzoan San Antolin baseliza zegoen. Gaur egun desagertuta dago, baina auzoa izen horrekin ere ezagutzen da. Arriaga auzoan Zabale Torre baserria, udalerriko ederrenetarikoa, eta Apraiz errota daude ikusgai. San Antolin jaiak: irailak 2.

SALLOBENTE-ERMUARAN

Sallobente-Ermuaran da baserri gehien dituen Elgoibarko auzoa, hirurogehita hiru denera. Pilotaleku bat, zelai bat, errekatxo bat eta bolatoki bat daude San Lorentzo baselizaren ondoan.

Tenplu honetan Gipuzkoako margo errenazentista zaharrenak eta garrantzitsuenak ikus daitezke. Arostegi jauregiak bailara honetako paisaia osatzen du, inguruko ederrenetarikoa. Aipatzekoak dira Arostegi jauregiko plaza txikia eta iturria.

San Lorentzo jaiak: abuztuak 10.

IDOTORBE (San Pedro)

Ohi denez, Idotorbe-San Pedro auzoan jende ugari ibiltzen da. Aipatzekoa da San Pedro baseliza, bere tamainarengatik.

San Pedro jaiak: ekainak 29

AIASTIA (San Migel)

Auzo honen amaieran Gipuzkoa eta Bizkaia arteko muga dago. Auzo honetan, San Migel baseliza, 1845 urtekoa, ikusi ahal izango dugu. San Migel jaiak: irailak 29

AZKUE (San Roke)

Bertatik Karakate mendira igozteko bidea abiatzen da. Behin, herrian izurritea izan zen eta herritarrek San Rokeri erregutu zioten gaitz hori desagerraraz zezala. Sainduak eskatutakoa bete zuen, eta baseliza horri San Roke izena jarri zioten. Ermitaren gainean burdinazko bi boxeolarien irudia dago, Jose Manuel Ibar "Urtain" boxeoa txapeldunaren omenez jarria. San Roke jaiak: abuztuak 16

URRUZUNO

Bertan jende asko bizi ez bada ere, gero eta gehiago dira, bertako edertasunarengatik auzo eta inguru hau aisialdirako aukeratzten dutenak.



Industria

“Makina-erremintaren hiriburua” deitzen zaio gure herriari. XX. mendearen hasieratik Elgoibar nazioarteko merkatuetan ezagun bihurtu da, bertako enpresen ekimenari esker. Antzina egon ziren hainbat eta hainbat burdinolek bidea zabaldu zioten makina-erremintaren industriari. Dokumentatutako datuen arabera, gaur egun, ehun eta hirurogeita hamar enpresa daude Elgoibarren; eta bertan, guztira, hiru mila ehun eta hirurogeita sei langilek dihardute lanean

Enpresak zenbait jardueratan banatzen dira: makina-erremintaren fabrikazioa; errodamenduen fabrikazioa; ingeniartza mekanikoa; metalen forja eta estanpazio lanak; bernoen, torlojuen, kateen eta malgukien fabrikazioa; banaketa eta kontrolerako aparailu elektrikoaren fabrikazioa; metalen tratamendua eta estaltzea; lanabes mekanikoen fabrikazioa; transmisiorako organo mekanikoen fabrikazioa, e.a. Gaur egun, Elgoibarren egindako produktu askok eta askok lehiak dihardute nazioarteko markarik onenekin.

Herrian sei industria-gune garrantzitsu daude: Olaso, Lerun Ibaite, San Antolin, Arriaga eta Albitxuri. Hala eta guztiz ere, badira herrian zehar barreiatuta dauden beste zenbait enpresa.





Makina Erremintaren Museoa

Makina Erremintaren Museoak omenaldi bat egin die herri txiki hau makina-erremintaren diseinuaren eta fabrikazioaren erreferente bihurtu duten langileei, enpresariei eta gainontzeko guztiei. Era berean, bailara honen garapen sozio-ekonomikoaren oinarrietariko bat erakutsi nahi izan die belaunaldi berriei. Museoak, bestalde, industriaren ikuspegitik, gaur egungo errealitatearen eta errealitate historikoaren zabalkundea egin nahi izan du. Horretarako, eta aldi berean, industria indartsu honen historiaren atal bat jasotzeko sortu da museo hau.

Museoaren beste helburu bat bisitariak erakartzea da, eta bibenabar, "Burdinaren Turismoa" izenaz ezagutzen den bailarako jarduera turistikoa bultzatzea.

Museoa eraikin berri batean kokatuta dago. Mende hasieran Euskadiko industria tailerrak nolakoak ziren irudikatzea da museoaren helburua. Beti ere, helburu didaktikoa izanik, fabrikazio prozesuan erabiltzen diren teknologien sorrera eta bilakaera azaldu nahi izan dute.

Museoak 420 metro koadroko azalera erabilgarria du. Erdialdean nabe bat dauka, eta alboetan, berriaz, beste bi nabe handi. Bertan, 60 pieza baino gehiago daude ikusgai (fresatzeko makina orokorrak, tornu paraleloak, karrakagailuak, zultzeko makinak...), guztiak makina-erremintaren aintzindari elgoibartarrek egingakoak.

Museoa jendearentzat irekita dago, eta ikastetxeek eta enpresetako bidaiak egiten dituztenek ere ikus dezakete. Horretarako, aldeaz aurretik, IMHn hitzordua eskatu behar da, 943 74 84 56 telefono zenbakira deituz, edo museo@imh.es helbidera mezu bat bidaliz.





Fosilen eta Mineralen Museoa

Museoa, gaur egun, ondo berezitako bi aretotan banatuta dago. Lehendabizikoan, fosil ornogabeak eta Euskadiko fosilak daude.

Areto honetan hamaika horma-erakustoki ditugu. Horietako batean landareak daude erakusgai. Gainontzeko erakustokietan, aldiz, mota guztietako ornogabeak ikus daitezke; esate baterako, trilobite klaseko artropodoen fosilak, intsektuak eta krustazeoak. Horretaz gain, koralak, estromatolitoak eta graptolitoak ere badira. Erdialdean hamasei erakustoki txiki ditugu, eta bertan, Euskadiko fosilak daude: gutxi gorabehera, 1.000 ale.

Halaber, lehendabiziko areto honetan, uhin luzeko argi beltza duen fluoreszentzia-ganbera bat daukagu. Horri esker, bisitariek hainbat mineralen efektu kromatikoak ikus ditzakete.

Bigarren aretoan, aldiz, fosil ornodunak eta mineralak daude. Gaur egun, hamalau horma-erakustoki handi daude bertan, eta mahai gaineko hiru erakustoki. Horietan tamaina handiko ornodunak ikus daitezke. Horma-erakustoki txiki batean Ursus Spelaeus delakoaren hartz-kume bat dago. Gainontzeko horma-erakustokietan orotariko fosilak ikusi ahal izango ditugu: dinosauro txikiak, dinosauro arrautzak, marrazo hortzak, eta hainbat aztarnategititik (Estatu Batuak, Libano, Txina, Brasil, Alemania, e.a.) ekarritako arrainak.

Bertan Euskadiko mehatzeetako eta mendietako mineralen bilduma handi bat ere badago.

Museoa ikusi ahal izateko 608 41 66 83 telefonora deitu behar da.



Jaiak, feriak eta ekitaldiak

JAIAK

Urtarrilak 17 San Anton:

Elgoibarko bigarren zaindaria. Ekintza kulturalak.

Trinitate jaiak (maiatzaren bukaeran edo ekainaren hasieran, santutegiaren arabera):

Beste hainbat kultur ekintzaren artean, artisautza feria eta herri mailako nekazaritza eta abeltzantza feria dira aipagarri. Haur eta nagusien danborradak.

Abuztuaren 23an hasita, San Bartolome jaiak: Herriko jai nagusiak. Ekitaldi batzuk aipatzearen: sokamuturra, Mauxitxa txaranga, kontzertuak, ganadu feria eta sagardo lehiaketa...

FERIAK

Hileko azken larunbatean, nekazaritza eta ganadu feria ospatzen da.

Trinitate azoka: Elgoibarko baserrietako produktuak soilik egoten dira abeltzaintza eta nekazaritza feria honetan. Feria egunean herri kirolak eta erromeria ere izaten dira.

Trinitateetako artisautza azokan, artisauak egiten dituzten lanak ikus ditzakegu. Halaber, artisauak lanean ikusteko aukera izango dugu.

Baserritarren eguneko feria, San Bartolome jaietan ospatzen da, abuztuko azken larunbatean. Ekintza aipagarrienak: sagardo lehiaketa, gazta lehiaketa, limusin ganadu lehiaketa eta enkantea, herri kirolak...



Gabon Zahar Feria: urteko azken larunbatean ospatzen da. Euskal Herriko feriarik garrantzitsuenetakoa da. Bertan gazta lehiaketa, barazki eta fruta lehiaketa, ...izaten dira. Aldi berean, hileko azken larunbatean egiten den nekazaritza eta ganadu feria izaten dugu. Bertako produktuak saltzen dituzten ehun postu baino gehiago izaten dira.

EKITALDIAK

Nazioarteko Juan Mugerza Krosa, urtarrilean.

Nazioarteko Folklore Jaialdia, uztaillean.

Nazioarteko Xake Txapelketa, abenduan.



Mintxeta

DEBABARRENEKO BTT zentroan 16 ibilbide egin daitezke. Ibilbideak seinaleztatuta daude, eta edertasun handiko ingurune natural batean kokatzen dira. Guztira, DEBABERRENA eskualdeko ibilbide-sarean barrena, 400 kilometro egin daitezke bizikletaz.

Zentro honetan badira ibilbide zailak. Maldan gora igotzeko ahalegin egin ostean, paisaia ikusgarriez gozatu ahal izango dugu, mendi gailurretako bideetan zehar goazela.

Familiak eta bide samurragoak egin nahi ditzuztenek ere izango dute gustuko ibilbideak egiteko aukera, batik bat, kostaldean eta barnealdeko zenbait herritan; eta nola ez, Mintxetako Harrera Gunearen inguruetan.

Mintxetako Harrera Gunean Elgoibarko herriari eta eskualdeko gainerako herriei buruzko informazioa eskura daiteke. Halaber, ibilbide gomendagarrienei buruzko informazio zehatza ematen zaie taldeei zein norbanakoei, bakoitzaren interesak kontuan izanik.

Gainera, bizikletak, kaskoak, e.a. aloka daitezke bertan. Txirringuzaleek komunak, dutxak eta botikina izango dituzte eskura Mintxetako BTT Zentroan. Horretaz gain, bizikletak garbitzeko, konpontzeko eta aparkatzeko lekua ere izango dute.

Mintxetako Kirol Guneari (zelaiak, igerilekuak...) esker, eta inguruan, (adibidez, Sallobente-Ermuaran bailaran), aisialdirako eta paseatzeko dauden tokiei esker, BTT Zentroa, eta batik bat Harrera-gunea, oso erakargarriak dira, bai BTT kirola egitea gogoko dutenentzat, bai naturazale guztientzat.

Oro har, Debaberrena eskualdeko BTT zentroan, interes eta edertasun handiko paisaiak ikusi ahal izango ditugu. Kostaldearen urdinak eta barnealdeko mendien berde biziak ezusteko atseginak emango dizkio bertara datorren bisitariari.



Leku interesgarriak

Udaletxea

Ignacio eta Francisco Iberok egindako eraikin barrokoa da (1737).

Altzolako bainuetxea

1846 urtean sortua, bertako gatz-ur termalak gaur egun ere merkaturatzen dira.

Altzolako errota

Zentral elektriko honek 250 KW-ko Kaplan turbina horizontal bat dauka.

Apraiz errota

Gaur egun zaharberitutako errota dagoen tokian, antzina, burdinola bat zegoen. Oraindik ere desagertutako eraikinaren zenbait azterna gordetzen dira.

Zabale Torre

Zabale Torre baserriak XV. mendeko jatorrizko osagaiak ditu, hala nola, arku zorrozdun sarrerak, leiho zabal bikoitzak, gezi-leihoak edo modiloia.

Fosilen eta Mineralen museoa

Museoan fosil ornogabeen, fosil ornodunen eta mineralen erakusketa zabala dago ikusgai. Museo bisitatu nahi izanez gero, ordua aurrez eskatu behar da.

Makina Erremintaren museoa

Museoan XX. mende hasierako lantegien itxura eta edukiak jasotzen dira.

Kultur Etxea

Elgoibarko Kultur Etxea Altzola dorretxean kokatzen da. Dorretxea XV. mendekoa da.

Pilotalekua

Euskadiko pilotalekurik zaharrena da, 1751. urtean eraikia.

San Bartolome eliza

Longa, Larraza eta Iberotarren lana da. San Bartolome eliza 1716. urtean inauguratu zuten. Erretaula nagusia Justinianiren eta Ugartemendiaren lan neoklasikoa da.

Olasoko ataripea

1459. urtean Martin Sanchok Olasoko San Bartolome eliza eraiki zuen. XVIII. mendetik hona, elizaren ataripea gorde da hilerriko sarrera gisa.

Barrena berri zentral elektrikoa

Barrena berri zentral elektrikoa Deba ibaiaren ertzean dago. Eskualdeko estreinako zentral elektrikoa izan zen, eta 500 KW-ko Kaplan turbina horizontala dauka.





Gastronomia

Hileko azken larunbatean egiten den nekazaritza eta abeltzaintza azoka bertako produktu onenek duten estimazioaren erakusle da. Bisitariak eta elgoibartarrek sukaldaritza onaren plazeraz goatzeko aukera dute, bertako jatetxe eta erretegiak aukera zabalari esker. Horretaz gain, tabernetan pintxo goxoak dastatzeko aukera ere bada.

Elgoibartarrek euskal sukaldaritzaren benetako zaporea gordetzen jakin izan dute.

Horren lekuko dira saltsak eta erregosiak. Aspaldidanik, liluratuta utzi dituzte eskualdeko berezitasunak dastatzera gure herrira hurbildu direnak.

Itsasoaren hurbiltasunari esker, jatetxeek itsasoko produktu onekin hornitzen dituzte sukaldeak. Eskualdeko berezitasun goratuenetako batzuk Kantauri itsasoan dute jatorria. Berdel urri eta zaporetsua kasu, Elgoibarko sukaldariak hamaika modutan prestatzen dutena. Legatza, kokotxa eta almejekin, dugu gure sukaldaritzaren beste adibide bat. Gezurra badirudi ere, Gipuzkoako barnealdean du jatorria plater itsastar honek.



Inguruko herriak

Elgoibar, Deba, Eibar, Ermua, Mallabia, Mendaro, Mutriku eta Soraluez dira Debabarrena eskualdea osatzen duten herriak.

Deba udatiar tradizioko herria da, hondartza ederra eta kostalde ikusgarria dituena. Hirigunean Santa Maria eliza (Monumentu Nazionala) da eraikinik aipagarriena. Landa-auzo interesgarri asko ditu, hala nola, Lastur, Elorriaga edo Itziar. Azken honetan izen bereko amabirjinaren santutegia dago.

Eibar, eskualde-burua, artisau tradizio handiko hiri komertzial eta industrialia da. Bertako damaskinatuak eta armak mundu guztian dira ezagunak. Arkitektura erlijiosoari dagokionez, San Andres eliza eta Arrateko Andre Mariaren santutegia dira garrantzitsuenak.

Ermua industria herria da. Eraikuntza artistiko esanguratsuenak Santiago Apostoluaren eliza, Valdespina markesaren jauregi barrokoa (gaur egungo udaletxea) eta Lovianoren jauregi errenazentista dira.

Mallabia, Oiz mendiaren oinetan kokatua, landa auzo ugari dituen herria da. Hori da herriaren ondare artistiko eta etnografiko handiena: baserri ederrak, ermita zaharrak... Betidanik izan da herri kirol norgehiagokengatik ezaguna: idi probak, harri jasotzeak.....

Mendaro Aranerreka bailararen hasieran dago. Haran hau espeleologiaren paradisu bat jotzen dute askok, bertan, leize eta kobazulo ugari baitago. Mendaron “Chocolates de Mendaro Saint Gerons” etxea ere ikus daiteke. Enpresa honek mende eta erdi darama txokolata artisau erara egiten.

Mutriku, antzinako arrantzale herri tipikoa, Debatik 4 km-ra kokatua. Alde zaharrea hainbat eraikin interesgarri ikus daiteke, hori dela eta, Murtzo Historiko Monumentala izendatu dute. Naturari eta paisaiari dagokionez, Mutrikun nekazaritza auzo ederrak daude ikusgai, Olatz eta Astigarribia, besteak beste. Bi auzo horietan oraindik ere istorio eta kondaira ugari gordetzen dituzte. Kostaldea da Mutrikuk duen gauza erakargarrietako bat, hondartza eta kala ederrekin; Saturraran edo zazpi hondartzak, besteak beste.

Soraluzeko eta Elgoibarko herrien gainean dago Karakate-Atxolin-Irukurtzeta mendikatea. Bertan, Neolitiko garaiko eta Brontze-Aroko aztarnategi garrantzitsuak daude (trikuharriak eta tumuluak). Hirigunean, aipatzen da Andre Mariaren Zeruratzearen eliza.



Zerbitzuen gida

UDALA
www.elgoibar.org

Arreta bulegoa
943 74 10 50
arreta-bulegoa@elgoibar.net

Kultura Saila
943 74 21 58
kultura@elgoibar.org

Udaltzaingoa
943 74 13 94
udaltzaingoa@elgoibar.net

JATETXEAK

Amistad
P. Muguruza, 31
943 74 10 01

Aterpe
San Roke, 5
943 74 25 95

Belaustegi
San Migel Gaina
943 74 31 02

El Gautxo
Errosario, 71
943 53 17 71

Gabi
Nafarroa plaza, z/g
943 74 12 30

Gorbea
Santa Ana, 10
943 74 05 80

Harzubi
Olasope, 2
943 74 12 44

Herri Gain erretegia
Idotorbe auzoa
943 74 30 40

Ibai Ondo Erretegia
Giza eskubideen plaza
943 74 26 27

Jaika
P. Muguruza, 27
943 74 10 29

La Bodega Erretegia
P. Muguruza, 22
943 74 25 00

Lanbroa
P. Muguruza, 5
943 74 08 06

Lerun Jatetxea
Lerun, 6
943 74 31 96
Madigan's
Bernardo Ezenarro, 2
943 53 15 57

Olaso
Olaso, 15
943 74 31 85

San Pedro
San Pedro auzoa
943 74 00 10

Sigma
Xixilion kalea, 1
943 74 85 31

Txarriduna
Ermuaranbide, 1
943 74 04 90

Aubixa
Idotorbe auzoa
943 74 19 09

HOTELAK
Txarriduna hotela **
Ermuaranbide, 3
943 74 87 78

INTERESEKO TELEFONOAK

Anbulategia (larrialdiak)
B. Ezenarro z/g
943 74 11 55

Gurutze Gorria
A. Agirre Plaza z/g
943 74 38 64

S.O.S DEIAK 112
Taxia
943 74 08 98



PESA autobusak
902 10 12 10

EUSKOTREN
943 74 04 42

Makina eta Erremintaren
museoa
943 74 84 56
museo@imh.es

Fosilen eta Mineralen
museoa
608 416 683





— www.elgoibar.org —

KULTUR ETXEA

T 943742158

F 943744161

Nafarroa Plaza, 3

20870 ELGOIBAR



**ELGOIBARKO
UDALA**

euskadi
*atsegin handiz
con mucho gusto*

deba
BARRENA

**TURISMO
GIPUZKOA**